

IDEIA

Guk proposatzen dugun ideia lehenengo klaseko ibilgailu elektrikoak, esaterako patineteak, bizikletak, etab eskaintzen dituen zerbitzua da. Hau ingurumenerako ona da, energia berriztagarria erabiltzen duelako, kontaminazioa arazo sozial bat bihurtu delako. Kotxea erabili beharrean, guk eskaintzen ditugun baliabideak erabiltzen badituzu, ingurumena ez duzu kutsatuko. Gainera, **turismoa** eta **aisialdia** hobetuko da.



- **Turismoa:** Nahiz eta Durango txikia izan, askotan kanpoko jendea ikusten dugu elizei hainbat argazki egiten edota dauden museotxoak bisitatzen. Durangotik bazabiltzate, ikusi al dezakezue Durangoko hainbat puntutan mapak jarri dituztela, beraz, oso lagungarriak dira turismoa handitzeko. Turismoa egin nahi baduzu, gure bizikleta elektrikoak alokatuz askoz azkarrago egingo duzu eta leku bakoitzean denbora gehiago iraun ahalko duzu.

- **Aisialdia:** Lagunekin bazaude eta ez badakizu zer egin, gure dendara etorri eta patinete elektriko bat edo gailu berri bat alokatu ahalko duzu lagunekin buelta bat emateko ondo pasatzen duzun bitartean.

